



Arartekoaren 2018S-2078-17 EBAZPENA, 2018ko urriaren 22koa. Horren bidez, Amurrioko Udalarari iradoki dio ikuskapen eta kontrol prozedura bat ezar dezala bizitegi-eraikinetan salatutako zaratak modu eraginkorrean eta objektiboan egiaztatzeko.

Aurrekariak

1. Amurrion bizi den pertsona batek kexa bat aurkeztu zuen Arartekoan, administrazioak ez baitu esku hartzerik egin etxebizitzan jasaten zituen kalte larriak konpontzeko; kalte horiek honako hauek eragiten dute: alde batetik, goiko etxebizitzan bizi diren beste bizilagun batzuek sortutako zarata eta eragozpen handiak, eta bestetik, bizilagunen artean sortutako beste era bateko desadostasunek eta bizikidetza txarrak.
Kexagileak azaldu duenez, Amurrioko Udalean hainbat eskaera eta kexa aurkeztu bazituen ere, ez du emaitza onik erdietsi. Aurkeztutako erreklamazioak kontuan hartuta, komunitatean orientabideak eman eta bitartekotza egiteko udal zerbitzura bideratu zutela esan du. Bitartekotza prozesuan sortutako bizikidetza-arazo batzuk bideratzeko akordio batzuk lortu baziren ere, Amurrioko Udalak ez du jarraipenik egin bere etxebizitzan sortutako zaratak eta eragozpenak egiaztatzeko.
2. Kexagilea izapidetzeko onartu ondoren, Arartekoak zenbait kudeaketa egin zituen Amurrioko Udalarekin horri buruz egindako kontrol-jarduketan berri izateko.
3. Jasotako udal txostenetatik egiaztatu da Amurrioko Udala tartean zeuden aldeekin bitartekotza lana egiten saiatu zela sortutako bizikidetza arazoak konpontze aldera. Halaber, ikusi da udalak behin baino gehiagotan eskatu zuela zaratagatik bizilagunei eragozpenik ez sortzea. Nolanahi ere, ez dago jasota salatutako zaratak izan diren egiaztatzeko kontrolrik egin zenik, eta ezta ukitutako etxebizitzetan jasandako zarata-maila zehaztu zenik ere.
4. Gainera, nabarmendu behar da, denboraldi bat igaro ondoren, kexagileak Arartekora jo zuela berriz honako hau jakinarazteko: sortutako kalteak jasanezinak zirela-eta, etxebizitza saltzea erabaki zuela. Nolanahi ere, kexagileak azpimarratu bazuen ere etxebizitza salduta bere arazoa konpondu zela, uste du Amurrioko Udalaren esku-hartzeak arduratsuagoa izan behar zuela eta jarraipen handiagoa egin behar zuela bere etxebizitzan zegoen soinu-maila zehazteko.

Aurrez azaldutakoa eta etxebizitza salduta sortutako arazoa desagertu egiten dela aintzat hartuta, Arartekoak Amurrioko Udalarari kexa espediente honi buruzko gogoeta eta ondorio batzuk helarazi nahi dizkio erreklamazioaren arrazoiari buruz udalak duen jardun-esparruari dagokionez.





Gogoetak

1. Erakunde honen esku-hartzearen helburu nagusia hauxe da: eraikineko beste etxebizitza batzuek sortutako eragozpenak direla-eta jarritako salaketak kontuan hartuta, Amurrioko Udalak emandako erantzuna baloratzea.

Kexa aurkeztu zuten pertsonak Amurrioko Udalaren esku-hartzea eskatu zuten etxebizitzan jasaten zituzten zarategatiko eragozpenak konpon zitzan, bere etxebizitzan izandako immisio-maila zehazteko probak eta neurketak eginez.

2. Amurrioko Udalak bideratutako jardunetan, egokia ikusi da bizilagun horien eragozpen eta kalteen jarraipena eta zaintza egitea zerk sortzen duten zehazte aldera. Horretarako, tartean zeuden aldeei abisatu eta zenbait azterketa nahiz kontrol egin ziren, tartean zeuden bizilagunei salatutako arazoak berri emateko eta zarata zegoela ohartarazteko. Dena den, udalaren jardun horrekin ez zen ondorio eztaba daezinik lortu.
3. Kexagileen eskaerak ikusita, Amurrioko Udalak behin baino gehiagotan esku hartu zuen eragozpenak sortzen zituzten bizilagunei zarata-maila murriztu zezaten eskatzeko. Nolanahi ere, kexagileak aipatu zutenek, ez da jaso salatutako zaraten gaineko neurketaren bat eta etxebizitzako soinu-maila egiaztatze probaren bat egin denik.
4. Bizilagunek ateratako zaratek eragiten dituzten eragozpenak konpontzeko eremua bide zibila da, oinarritzat jabetza horizontalen legeriaren araubide juridikoa hartuta.
5. Zaratari buruzko Legearen (azaroaren 17ko 37/2003) nahiz urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren (Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzkoa) aplikazio eremutik kanpo daude bizilagunen etxeko jardueretatik eta jokabideetatik sortutako zaratak. Hala ere, 37/2003 Legearen 2.2 artikulua honako hau ezartzen du bere aplikazio eremuaren barruan: bizilagunen arteko harremanetan gertatutako eta, ***"udal ordenantzekin nahiz tokiko erabilerekin bat eginez, onargarriak diren mugak"*** gainditzen duen kutsadura akustikoa.
6. Lokalen erabilerekin bat etorritik onartezinak diren mugak gainditzen ez direla ziurtatzeko, sortutako zarata behar bezala egiaztatu behar da.

Hizpide dugun kasuan, zarata dagoela eta zerk eragiten duen azterketetan ondo baino hobeto jaso da. Nolanahi ere, eragozpen horiek berriro gertatuz gero, udalak, ukitutako pertsonak hala eskatzen badu, zaraten errepikapena egiaztatu behar du eta haiek neurtu.

Egiaztapena eta neurketa modu objektiboan egin behar dira lortutako probak eta eginbideak helburua lortzeko erabilgarriak izan daitezen.





Egiaztapenak hau eskatzen du: zarataren balioak tresna egokiekin neurtzea haren intentsitatea baloratzeko, udaltzainek zaratak errepikatzen direla baieztatzea ez baita nahikoa.

Egiaztapena eraginkorra izan dadin, beharrezkoa da esku-hartzeko modu azkarra eta egokia finkatzea. Horrek, salaketaren ondoren, eragozpenak kontrolatzeko eta neurketa zentzuzko epearen barruan egiteko aukera emango luke.

Prozedura horretan, salatzailearen parte-hartzea funtsezkoa da, bai salaketa jartzeko, bai neurketa errazteko, bai eta neurketa egiteko unea eta denbora zehazteko ere.

7. Dena den, erakunde honen aburuz, administrazioak egindako izapideak ez dira eraginkorrak izan zaraten egiaztapena eta neurketa objektibotasunez egite aldera.
8. Auzokideen komunitateen barnean sortutako zarata kasuetan izaten diren inguruabar berezietz jabetu beharra dago. Nolanahi ere, udalak, eskubideen bermatzaile gisa bere iritzia agertu behar du kutsadura akustikoak etxebizitzetan izan dezaketen eraginari dagokionez; horretarako, ukitutako ondasun juridikoa konpontzea eragiten duten jarduketak sustatu behar dituzte, legezko xedapenen barnean.

Gainera, sortutako zarata egiaztatzeke udalak egindako jarduketek ez dute esan nahi gainerako bizilagunen eskubideak eta bermeak kaltetzen direnik komunitateko balizko edozein bitartekotza prozeduran edo prozedura judizialean.

9. Azkenik, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak zein Konstituzio Auzitegiak beren jurisprudentzian ezarri dutenaren arabera, zarata jakin batzuen (modu objektiboan saihesgarritzat edo jasanezintzat jotzen direnak) eraginpean luzaroan egoteak norberaren eta familiaren etxeko intimitaterako oinarritzko eskubideari eman behar zaion babesari behar du, nortasunaren garapen askea oztopatzen edo zailtzen badute, baldin eta lesioa edo kaltea eragin duten **erakunde publikoen egite edo ez-egiteen** ondorioz gertatzen bada.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, honako gomendio hau egin zaio Amurrioko Udalari:





Iradokizuna

Kexan dauden datuen arabera, Arartekoak ikusi du egindako bitartekotza prozesuan, kexagileek egindako eskaerak kontuan hartuta Amurrioko Udalak behin baino gehiagotan esku hartu duela eragozpenak sortzen zituzten bizilagunei zarata-maila murriztu zezaten eskatzeko.

Hala ere, Arartekoak ondorioztatu duenez, kexagileak dioen moduan, administrazioak egindako izapideak eta emandako ebazpenak ez dira eraginkorrak izan zaraten egiaztapena eta neurketa **objektibotasunez** egite aldera.

Arrazoi hori dela-eta, kasu honetan gertatutako egoeren modukoak saiheste aldera, Arartekoak Amurrioko Udalarari honako hau iradoki dio: ikuskapen eta kontrol prozedura eraginkor eta objektiboa finka dezala bizilagunen arteko harremanen esparruan salatutako zaratak egiaztatzeko, hau da, udal ordenantzekin nahiz tokiko erabilerekin bat eginez onargarriak diren mugak gainditzen ez dituztela egiaztatzeko.

